

Diaporamagintza mintza aitzakia

Pello Joxe Aranburu

Talde handia, hamabost ikasle ziren Areso 18ko 9. gelan, aurten urtarri-laren 12an. Lazkaoko Barnetegiko ikasle batek, hain zuzen, Toti Catalan kazetariak hauxe galdetu zidan klasean:

- Egia al da «Kaskarintxo», diapositiba muntaia, orain EGA egiten ari den taldeak egin duela?
- Bai —izenak esan nizkion.
- Klaseetan erabiltzen duzue, ezta?...

Bere harridura agertu zidan; aldi berean, interesa ere bai. Bapatean, ideia berria bururatu zitzaidan eta, ikastordua amaitu ondoren, berari esan nion:

- Zergatik ez duzu egiten erreportaia txiki bat HABErako? Xabier, Elena, Mari Jose, Marta, Pello, Yolanda eta Mertxe, berorren egileetarikoz batzuk, hemen euskaltegia dituzu, oraindik.

Idea gustatu zitzaion, lehenik diaporama ikusi behar zuela esan zidan... Aste-buruan «Kaskarintxo» izeneko liburua irakurri zuen eta handik egun gutxitara artikulua prestatua zuen. (Honen erreferentziak: HABE, 1988-VI-1, 30-31 orr.; izenburua —*Lazkaoko barnetegiko ikasle talde batek, «Kaskarintxo» landuz, euskaraz diaporama bat egiteko gai garela baieztatu dugu; Toti Catalan-ek izenpetua— bere izena Toti da, eta ez Tori).*

Artikulu hori irakurri eta hauxe eskatu didate: neure ikuspegitik azal ditzadala esperientzia horren alderdiak. Hona hemen labur-labur adierazita.

1. IDEIA NOLA SORTU ZEN

Lazkaon, normalean irailean, aurreko ikasturtean ibilitako ikasleek izan ohi dute lehentasuna EGAREN bigarren deialdira presentatzeko. Horregatik ikasturtea, egiaz, urrian hasten da.

Beraz, iaz urriko ikastaroan, 8. urratsean, Lazkaoko Barnetegian lehen aldiz euskara ikasten ari zen taldea tokatu zitzaidan, beste batzuen artean. Talde berria, ikastetxe desberdinetatik etorritako ikaskide ezezagunez osatua, eta guretzat ere, irakasleontzat, ezezaguna.

Lehenengo egunak pasa bezain aguro, taldea, 8. urratseko hau, bizia eta kezkatia iruditu zitzaigun; horrelako etiketak jarri genizkion. Egun batean, Lazkaoko gazteekin hitz egin nahi zutela esan zidaten. Gerriko Txokoan elkar-topaketa hori egin zuten. Beste egun batean, diaporama bat ikusi ondoren, Euskalerriko Geografia Fisikoari buruz zen, honela esan zidaten:

«Dena egina eta programatua duzue eta, gainera (diaporamen zerrenda jaso eta gero), emanaldi guztiak instruktiboak dituzue. Zergatik ez dugu guk geuk egiten diaporama arinago bat?»

Ikasleen asmoa oso ondo iruditu zitzaidan eta neure laguntza eskaini nien. Horrela amaitu zen klasea.

2. IDEIAREN BIDERAKETA

Ikasleengandik jaso nuen ideiak eta beronek zeraman komentariotxo horrek —den-dena egina eta programatua duzue— bultzatu ninduten esperientzia berria aurrera eramatera.


Berehala ikusi nion mintzabiderako oso egokia izan zitekeenaren alderdia; taldearen baitatik irtena, ariketa oparoa eta aberatsa, eta ordu asko eramango zizkien aktibitatea izango zelako. Ideia zehazten joateko eta nik betetan neure ahalmen osoz lagunduko niela gaineratu nien.

Hurrengo egun batean, «Herrialde Berdea» diaporama proiektatu nien, Frankoren garaian egin eta atzerrian argitaratutako ipuin bati buruzko emanaldia, 30 minututako diaporama sinkronizatua. Ipuina zen, marrakiz taxutua, baina kutsu politikoaz hornitua zegoelako edo, ez zuen bete-beteko onespenez lortu; dena den, baliagarria iruditu zitzaien.

Biharamunean, klaseko gaia hamar minutu lehenago amaitu zitzaigun eta berriro aireatu genuen. «Hiru behien zerga» ospakizunaren diapositibak, 1987koak baneuzkala..., gidoirik gabe zeudela. Nahi zutena ez zen hori, gauza orijinalagoaren ametsetan zebiltzan.

Taldeko irudimena martxan jartzea lortu nuen. Berehala hasi ziren ideia berriak. Batak Tebeotako irudiekin zerbait egin nahi zuen, besteak Istorio Mutuekin... Azkenean, norbaitek *Kaskarintxo* Josean Ormazabalen ipuin-liburuaren ideia klaseratu zuen. Aste betean talde osoak irakurri zuen, ni barne.

Diaporama egin behar genuela esan eta «Kaskarintxo» hori aukera bitartean, hamabost egun igaro ziren. Makina bat hizpide sortu zuen gure artean, klasean eta klasetik kanpo. Ordurako, esperientziak mintzabide egokia zela adierazi zidan, baina, esperientzia berria zenez, hau planteatu nien: langintza honi astean ikastordu bat emango diogu; beste guztia ikastorduetatik at egingo dugu. Denok ados geunden.



Kaskarintxo liburutik hartuta*

3. LANAK BANATU ETA GAUZATZEN

«...Bi taldetan banatu genuen lana. Batzuek liburuaren laburpena egin behar zuten, besteek marrazkiak. Laburpena bi aldiz egin genuen. Izan ere, lehenengoa pentsatutako mailarako zail samarra izateaz gain, luzeegia zen.»

«Marrazki-pilo bat zen, hirurogeitazapi gardenki denetara, batzuk liburutik hartuak, besteak asmatuak.» (Lehen aipatu HABEko artikulutik hartuak.)

3.1. Helburua zehaztu genuen

Entzumena lantzeko materiala sortu, 4. urratserako mailakatu, eta 15-20 minututako diaporama. Batzuek beste 10 segundo diapositiba bakoitzari emanez, gutxi gorabehera denbora hori kalkulatu genuen.

3.2. Marrazkiak

Marrazkiak sailkatzea eta nork, zenbat, zer koloretan, zer teknika bidez egin erabaki zuten.

Marrazterakoan estilo, trebetasun eta zehaztapen desberdinak agertu ziren taldean. Batek lana zaila zela esaten zuen, besteak luzea, hirugarren batek astuna. Izan ere, laburpena eta marrazkiak gauzatzen hilabete osoa igaro zuten.

* M. Landa; J. Ormazabal: *Kaskarintxo*, Donostia, Elkar.

3.3. Filminak ateratzea

Marrazkiak birritan ikusi, konparatu eta berregin zituzten, eta azaroan filminak atera marrazkietatik. Froga txiki bat egin ondoren, lan hori neri eman zidaten.

Pentax MG argazki makina eta Tamron Zoom 80-210 mmko teleobjetibo batez 2 ordutan egin nituen gardenkiak.

3.4. Grabaketa eta sinkronizaketa

«Ahotsaren grabaketan, Jonek, hemengo irakasle batek, musikaren munduan sarturik dabilenez, musikako bere taldekideek entsaiotarako erabiltzen duten aretoa utzi zigun eta grabaketa egiten lagundu.» (Toti-ren artikulatik hartua.)

Hitza, hotsak eta musika nahastea Jonek egin zigun, taldekideek lagundurik; sinkronizaketa, berriz, nik egin nuen.

3.5. Denok aiduru

Azkeneko, bi ikastaro, hots, bi hilabete iraun zuen gure muntaiak. Berririo Toti-k HABENn idatzitako artikulua irakurrita, hau esango nuke: luzeegia eta neketsua gertatu zitzaigula lan hori, denok emaitza ikusteko goz, urduri geundela eta ordu asko xurgatu zizkigula.

4. BAINA ESPERIENTZIA ERREPIKATZEKOTAN

Margotzeak, ipuin-laburketak eta diaporamen muntaiek ordu neketsu asko eramaten badute ere, oso interesgarria da lan hori. Txit positibotzat jo zuen taldeak. Ikus aipatutako artikulua.

Urte batean, ehundaka ikaslek ikusi dute «Kaskarintxo» diaporama; txaloka amaitu da emanaldia askotan.

Honela zioen Kaskarintxo talde horrek ere, irakasleok horrela deitzen genien eta: «...pozez beterik sentitzen gara. Gu hemendik, barnetegitik, joaten bagara ere, gure lana hemen geratuko da, etorriko diren ikasleek erabiltzeko.»